

URTE BAT GEHIAGO

Astigarragako eta inguruko sagardozaleek antolatuta, urtarrilaren 13an eman zitzaion txotx denboraldiari hasiera ofiziala. Udaletxearen laguntzarekin, bi egun lehenago komunikabideen aurrean aurkezpena egin zen. Prentsaurrekoaren ondoren, bazkaria egin zen. Gipuzkoako sagardozale guztiak zeuden gonbidatuta. lagundu digu egutegi gozoan zehar bidaia egiten

TXOTX!

NEKANE ITURREGI

J oan den urtean, lehenbiziko aldiz egin zen ekitalde ofizial honetan **Andoni Egoña** bertsolariari tokatu zitzaion txotxa irekitzea, aurtan, berriz, **Jose Mari Bakero** futbolaria aukeratu dute sagardogileek hasiera ofizialaz arduratzeko. Sagardogileen uste-lan, hasiera ofizialaren beharra oso nabaria zen azken urteotan txotxak lortutako ikusmina zela eta. Kontsumitzailea orientatzeko asmoz erabaki zen hasiera ofiziala egitea; horrela jakinarazten zaio noiz hasten den denboraldia.

Aukeratutako eguna, San Sebastian aurreko ostirala da. Goiz samar da hatzuen ustez, izan ere, baziren otsailean sagardotegia zabaltzen zuten sagardogileak, baina San Sebastian eguna erreferentziatzat hartu nahi denez, egun hori geldituko da gaurgero betiko.

Hurrengo urterako festa zabalagoa egiteko asmoa da: sa-



Jose Mari Bakero

JON URBE

Sida Natural - sagardo Natural

ZELAIÀ

1991

ZELAIÀ
SAGARDO
sagardo Natural

Bº Martindegi, 29
Tel. (943) 55 58 51 - 55 02 81
HERNANI (Gipuzkoa)

gardogileen arteko bazkaria egun osoko jai biburtu nahi da. Baina, horrek beste era bateko antolaketa eskatzen du, esate baterako, polikiroldegi bat edo antzeko lekuren bat prestatzea.

Dena den, hasiera ofiziala baino lehenago ere izan zen sagardo herria dastatzeko aukera.

Usario zaharrari eutsiz, **Gabon arratsaldean**, Astigarragako sagardotegi batzuek ateak zabalik izan zituzten. Obitura izan da beti Astigarragan auzokoak eta urtean zehar laguntzera etorritako jendeari Gabon gauean sagardo herria probatzera etortzeko gomileka egiteko. Artean ez zegoen sagardoa puntuari, baina nobedadea izaten zen sagardo herria probatzea eta horrela egiten zen. Sagardoak probatu ondoren, oso garaiz, zortziak aldera, elkarri Gabon gau zoriontsua opa eta norbera bere etxera joaten zen. Hori izan da usario zaharra. Usario horri urtero buits egin gabe eutsi dion Zapiainek adierazi digunez, "gure etxean juntatzen ziren, gebienez, hamahosten bat lagun".

Azken urte hauetan gauzak aldatu egin dira eta pasadizoan dagoen guztia sartzen omen da. Ondoko herrietara ere zabaldu da egun horretan sagardotegiak zabaltzeko usarioa. Tradizioa aldatu eta zabaldu egin da.

Aurtan biruk bakarrik ireki dituzte, bots, **Mendiola**, **Gurutzeta** eta **Bordak**. Zapiainek, orain arte usarioari eutsi dionak, ez zuen zabaldu Gabon gauean Urtezahar egunean haizik.